



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Hemen gure baliabideak nondik aterako ditugun argituko dugu, baita zer behar dugun gure proiektua aurrera eramateko.

Lokala martxan jartzeak 60.000€-ko kostuak suposatuko ditu. Gastu hauek estaltzeko honako gauza hauek egingo ditugu:

Gu lau bazkide gara eta bakoitzak 12.000€ jarriko ditu. Guztira 48.000€-ko kapital soziala bilduz. Hau nahikoa ez denez udaletxeak ekintzaile berriak bultzatzeko diru-laguntza bat eskaintzen dutela ikusita kostu hauei aurre egiteko gure hurrengo baliabidea izango da.



Gure asmoa udaletxeak ekintzaileei bideratutako diru-laguntzak eskatzea denez, hainbat baldintza bete ditugula zehaztu ondoren 18.000€-ko kapitaleko gehikuntza hori izango genuke. Diru-laguntza hauek ekintzaileei bultzatzeko laguntzak pertsonak fisikoei zuzenduta dauden diru-laguntzak dira; nagozio-ideia bat izanik, jardueraren edozein arlotan beratu, aztertu eta garatu nahi dutenentzat.

Betebeharreko baldintzak, laburki, azalduta honako hauek dira:

- EAEn errolatuta egotea.
- Enpresa edo negozio berri bat edozein jarduera-arlotan garatzeko ideia izatea.
- Erakunde laguntzaile baimenduetako baten aholkularitza-prozesuan sartuta egotea (hau da, diru laguntza hauek eskatzeko pausotako bat).
- Xede horretarako beste diru-laguntzarik jaso ez izana.
- ...

Diru-laguntza hau eskuratu ondoren oraindik nahikoa ez bada beste finantziaketa mota batzuetara joko dugu.

Maileguren bat eskatu beharko bagenu BBVA bankuak eskaintzen duen gazteentzako mailegua aukeratuko genuke.

Gaur egun tramite guztiak online egingo genituzke, hau da, eskaera eta onarpena. Gazteentzako banku-kredituen ezaugarri nagusietako bat malgutasuna da; beste mailegu gehienak, bete ezin diren baldintza batzuk daramatza baina ez da gazteentzako maileguaren kasua, izan ere, parametro altuen artean kantitatea hautatu daiteke, baita epe luzea. Baita ere, oso erraza da mailegu hau eskatzea, denbora gutxian egiten da eta ez da ia dokumentaziorik behar. Gazteentzako mailegu pertsonalek ehuneko baxuagoak izaten dituzte mailegu arruntenekin konparatzen baditugu.





BBVak Agiririk gabeko Lineako Mailegu Azkarrak eskaintzen ditu, hau da, ekintzaileei bideratuta dagoen mailegua. Honen bidez, 75.000€ arteko finantzaketa lortu ahalko dugu betidanik amestu dugun negozioa abiarazteko eta erreformak egiteko. Horretarako, ez da bezeroa izan behar, baizik eta prozesu guztia online egin ahal izango da eta 8 lanorduko epean erantzuna jasoko da. Horrez gain, 96 hilabete izango dira itzultzeko.

Bankuari mailegu bat eskatzeak gure kafetegiarengan laguntza extra bat suposatzen du gure proiektuak aurrera egin dezan.